



Mugipay gailu berri hau garraio konkretu batzuei bakarrik eskainiko diegu, hauek Dbus, lurraldebus eta TSST garraio publikoak izango dira. Autobus hauek aukeratu ditugu gehien erabiltzen direnak direlako, linea ugari dituzte eta egunerokotasunean erabiltzen diren autobusak direlako.

Dbus autobusak Donostian ibiltzeko aukera ugari daude, beraz ia pertsona guztiak erabili dezakete garraio mota hau. Horregatik pentsatzen dugu erraztasun hau ematea Dbus autobusetan bidaiatzen duten pertsonentzat oso baliagarria izango dela.

Bestalde, lurralde bus autobus konpainientzat ere oso baliagarria izango litzateke, gainera Gipuzkoako lekuetara joateko aukera ematen du. Dbus autobusak garraiatzeko muga eskasagoa du horregatik autobus hauei ere eskaini nahi diogu gailu berri hau, horrela jende gehiagori erosotasun hau eskaintzeko.

Bukatzeko, TSST konpainiari ere proposatuko diogu ideia hau. Autobus hauek aurreko bien muga baina handiagoa du, Tolosa edo Andoainera joateko aukera ematen dute.

Ondorioz, leku askotara joateko aukera ematen duten autobusen laguntzaz, erosotasuna, lasaitasun handiagoa edo denbora aurreztearen aukera emango duen gailua eskainiko diogu jendeari. Horrela bezeroen kezka murriztu egingo dira eta askoz errazagoa izango da txartelak kargatzea.